

# 0.14 Moldeak apurtzen – Emakume makinistak trenean eta tranbian

01

## Kurtsoa/Maila

6.LH  
1.DBH

## Datak

2026 Azaroa - 2027 Martxoa

## Hizkuntza

Euskara, Gaztelania

## Irismen geografikoa

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa

## Jarduera ematen duen erakundea

Euskotren

Jarduera honen helburu nagusia trenbide-sektoreko lanpostuetan emakumeen presentzia sustatzea da; izan ere, sektore hori tradizionalki maskulinizatua izan da (tailerrak, mantentze-lanak, tren eta tranbiaren gidaritza, ikuskaritza eta gainbegiraketako aginte-postuak, etab.). Euskotrenen makinisten, mantentze-teknikarien eta zirkulazio-arduradunen testigantza zuzenaren bidez, Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 1. mailako ikasleek ezagutuko dute nola teknologiak, irisgarritasunean egindako berrikuntzak eta ingurumen-jasangarritasunarekiko konpromisoak etorkizuneko garraioa definitzen duten.

Horrela, Euskotrenen lanpostu horietan ari diren edo aritu diren langileen bisitaren bidez, ikasleak —bereziki neskek— animatuko ditugu sektore honetako edo antzeko lanbideetara bideratutako prestakuntza aukeratzera, genero-estereotipoak eta etorkizuneko lan-segregazioak apurtuz.

Azpimarratzekoa da STEM orientazioko ekimen hau hiru lurraldeetako ikasgeletara eramango dela, tokiko testuingurura egokituz: tranbia Araban eta trena Bizkaian eta Gipuzkoan. Saio bakoitzean, erakundeak sektore honetako

## STEM Deskribatzaileak

STEM 2

STEM 6

erreferentziazko profesional bat edo bi jarriko ditu ikastetxeen eskura.

## Baliabideak

### Baliabide materialak

Ikasgelan aurretiazko lana egiteko zein Euskotrenen profesionalen bisitarako, ikastetxeak proiektzio-sistemaz eta audio-irtezen hornitutako ikasgela izan beharko du.

### Baliabide ekonomikoak

Ez dira behar.

### Informazio gehiago

euskotren.eus  
euskotren.eus/eu/erantzukizun-soziala

# 0·14 Moldeak apurtzen – Emakume makinistak trenean eta tranbian

02

## GARAPENA

### Prestaketa fasea

**Irakaslea-profesionala:** Euskotrenek irakasleari “Neskak trenara” bideoaren esteka eta ikasgelan egingo den galdera-sortze dinamikarako jarraibideak emango dizkio.

**Aurretiko lana ikasgelan:** ikasleek “Neskak trenara” bideoa ikusiko dute. Ikus-entzunaren ondoren, ikasle bakoitzak txarteletan idatziko ditu sektoreari buruzko bere zalantzak edo jakin-mina pizten dioten gaiak (teknologia, eguneroko lana, beldurrak edo erronkak). Ondoren, klase osoaren artean txartel horiek kategoriatan sailkatuko dituzte (adibidez: teknologia eta segurtasuna, ikasketak eta ibilbide profesionala, jasangarritasuna, etab.), bisitaren egunean profesionalari emango zaien galdera-multzo bateratua osatzeko.

**Gutxi gorabeherako dedikazioa:** ordubete

### Garatze fasea

Bisita ikasleen eta erakundeko profesional baten edo biren arteko topaketa dinamikoa izango da (makinistak, mantentze-teknikariak edo zirkulazio eta aginte-arduradunak), eta haiek ikastetxera joango dira beren ibilbidea eta eguneroko lanaren gakoak partekatzerako.

Hitzaldi ohiko baten ordean, saioa kaxa baten bidez antolatuko da. Kaxa horretan ikasgelak aurretik taldean sortutako galdera eta kezkek jasoko dira. Profesionalak txartelak ausaz aterako dituzte, eta horiek izango dira azalpenaren haria: zer funtzio dituzten, bertara iristeko zer ikasi zuten eta nolakoa den haien eguneroko lana trenbidean edo tailerrean.

Elkarrizketan zehar, erreferenteak azalduko dute Euskotreneen berrikuntza teknologikoa ez dela soilik trenak eta tranbiak modu jasangarrian mugitzeko erabiltzen; irisgarritasun unibertsala bermatzeko ere funtsezkoa dela (pertsona guztiek, salbuespenik gabe, autonomia osoz bidaiatu ahal izateko diseinua).

Fisikoki bertaratu ezin izan diren rola erakusteko, kasu bakoitzean dagoen denboraren arabera, profesionalak beren lankideen bideoak (erakundeko

beste STEM profil batzuk) proiektatu eta komentatuko dituzte. Horrela, ikasleek enpresako aginte- eta laguntza-kate osoari aurpegia eta ahotsa jarri ahal izango diote, ikuskaritzatik hasi eta aginte-postuen gainbegiraketaraino.

**Gutxi gorabeherako dedikazioa:** 1,5 ordu

### Ikasgelan integrazio fasea

Azkenik, ikasleek STEM lanbideei eta trenbide-sektoreari buruz duten pertzepzioa nola aldatu den hausnartzeko, irakasleak bisitaren aurretik sortutako galdera-multzoa berreskuratuko du. Ikasleek aztertuko dute nola aldatu diren haien erantzunak profesionalak ezagutu ondoren, eta hautsi dituzten genero-estereotipoak buruz eztabaidatuko dute.